


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,5 jaitsi ziren 2017ko martxoan aurreko hilaren aldean

2016ko martxoaren aldean %0,5 gehitu

2017ko martxoan, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,5 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasan %0,5 gehitu, EUSTATen datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak %0,7 jaitsi.

Martxoan Etxegintzaren atalean %0,6ko jaitsiera aurreko hilaren aldean lehengaien kostuan; Obra Zibilarenean %1,1. Urte artean: Etxegintzaren lehengaien kostuak %0,1 jaitsi; Obra Zibilarenak %2,7 gehitu.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezio hazkunderik handienak urte artean (2017ko martxoa 2016koaren aldean): *Petrolio fintzea* %31,2; *Metalurgia* %8,4; *Ez-metalezko industria* %2,4. Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: *Kautxu eta plastikoa* (%-3,7); *Ez-metalezko mineralak* (%-1,9); *Industria kimikoa* (%-1,4).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2017ko Martxoa

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	102,2	-0,5	0,5	0,4
Eraikinak	102,3	-0,5	0,2	0,4
Obra zibila	101,5	-0,8	2,3	0,4
LEHENGAI	100,7	-0,7	0,3	0,2
Eraikinak	100,9	-0,6	-0,1	0,2
Obra zibila	99,7	-1,1	2,7	0,2
LAN-ESKUA	107,4	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)